

## **Bizikidetza Plana**

### **AURKIBIDEA**

**BIZIKIDETZA-PLANA ETA OINARRIZKO GAITASUNAK**

**LEGE-ESPARRUA**

**BIZIKIDETZA-PLANAREN HELBURUA ETA EDUKIA**

**BIZIKIDETZA-PLANAREN ETA IKASTETXEKO BESTE DOKUMENTU BATZUEN**

**ARTEKO LOTURA**

**LANKETA-PROZESUA**

**ELKARBIZITZA BEHATOKIA**

**DEFINIZIOA**

**FUNTZIOAK**

**OSAERA**

**FUNTZIONAMENDUA**

**SORRERA**

**LANKETA-FASEAK ETA ONDORIOAK**

**SENTSIBILIZAZIOA**

**KONTZEPTU-MAPAK PARTEKATZEA.**

**IKASTETXEKO ELKARBIZITZA: GIZA ESKUBIDEEI ARRETA JARTZEA.**

**NOLA DEFINITZEN DITUGU GATAZKA, ELKARBIZITZA-ARAUAK ETA BIZIKIDETZA.**

**DIAGNOSTIKOA.**

**DIAGNOSTIKOTIK ENGAIAMENDURA: NON GAUDE.**

**ESPARRUAK: HEZKUNTZA-POLITIKA, ELKARBIZITZAREN ANTOLAKETA ETA**

**KUDEAKETA, GATAZKAREN ERALDAKETA ETA ETIKA.**

**ESPARRUAK: PARTE-HARTZEA, EMOZIOAK, SENTIMENDUAK ETA IDENTITATEA,**

**IRAKASKUNTZA- ETA IKASKUNTZA-PROZESUA, IRAKASKUNTZA-ESTILOA.**

**PLANGINTZA.**

**AHULGUNEEN KAUSEN AZTERKETA.**

**ERALDAKETA: KAUSAK HELBURU BILAKATZEA.**

**DATOZEN LAU IKASTURTEETARAKO HELBURUAK**

**2012-13 URTEKO ELKARBIZITZA PLANEKO HELBURUEN LEHENESPENA ETA**

**AUKERAKETA**

## **BIZIKIDETZA PLANA ETA OINARRIZKO GAITASUNAK**

Gizarte-aldaketek hezkuntza-sistemaren egokitzapen-prozesu jarraitua eskatzen dute. XXI. mendeko hezkuntza ezagutzak transmititzea baino askoz gehiago da; zenbait gaitasun garatzea eskatzen du, besteak beste, etengabe bilakatzen den gizarte-testuinguru batean belaunaldi berriak pertsonalki, sozialki eta laboralki integratzea erraztuko duten gaitasunak.

Alor honetan, “elkarbizitzen ikastea” da hezkuntza-sistemaren oinarrizko helburuetako bat. Ikastetxearen erronka honelako bizikidetza-eredua garatzea da: oinarri hartuko dituen norbere eskubideen erabilera arduratsua, besteren eskubideekiko begirunea eta betebeharren betetzea, hezkuntza-komunitateak onartutakoa eta balio demokratikoetan oinarritua.

Elkarbizitzen ikastea hezkuntza-helburua da eta, beraz, beharrezkoa da matematika edo hezkuntza plastikoa ikasten diren moduan ikastea. Oinarrizko gaitasun guztiekin lotuta dago, horregatik eragiten die ikastetxeko zeregin guztiei; baina, bereziki, gizarterako eta herritartasunerako gaitasunarekin eta autonomiarako eta ekimen pertsonalerako gaitasunarekin du zerikusia. Gaitasun horiek erreferentzia-eremu jakinik ez dutenez, lausotzeko arriskua dute. Alderdi hauek gaitasun horien muina eta, halaber, elkarbizitzen ikasteko ezinbesteko ikaskuntza dira: hiritartasunaren erabilera arduratsua, ikastetxean bertan eta gizarte-bizitzan engaiatzen ikastea, elkarriketaren ikaskuntza, giza eskubideei begirunea, enpatia, gatazkekiko jarrera positiboa, gizarte-gaitasunak eta emozioen kontrola garatzea, ideiak proiektu bilakatzeko eta horiek burutzeko gaitasuna, autoezagutza eta autoestimua garapena... Ikuspuntu hori oinarri hartuta, Bizikidetza Plana tresna oso erabilgarria da gaitasun horiekiko ikastetxeak dituen hezkuntza-asmoak birpentsatzeko, diseinatzeko eta irudikatzeko.

## **LEGE-ESPARRUA**

Legeetan maiz aipatzen da ikastetxeek balio demokratikoetan oinarritutako elkarbizitza positiboa sustatzeko planak garatu behar dituztela. Aipamen hauek jasoko ditugu adibidetzat:

- 1/1993 legea, otsailaren 19koa, Euskal Eskola Publikoari buruzkoa: balio demokratikoetan oinarritutako elkarbizitzaren sustapena aipatzen du, hezkuntzarako eskubidearen erabilera errazten duen elementutzat.
- Hezkuntzari buruzko Lege Organikoa (HLO-LOE) 2/2006, maiatzaren 3koa. Europar Batasuneko zuzentzauei jarraiki, gaitasunetan oinarritzen ditu hezkuntza-asmoak. Gaitasun horietako bik, gizarterako eta herritartasunerako gaitasunak eta ekiten ikasteko gaitasunak, hauekin lotutako alderdiak dituzte: gatazkak konpontzearekin, giza eskubideak errespetatzearekin, banako interesak eta talde-interesak kontuan hartuta erabakiak hartzearekin, sexuagatik, arrazagatik... pertsonak ez diskriminatzearekin, harremanak izateko eta elkarlanerako gaitasunak garatzearekin, haien ardura hartuta plan pertsonalak garatzearekin...

Horrez gain, ikastetxeek bizikidetza-planak garatu eta beren Hezkuntza Proiektuetan txertatu behar dituztela esaten du.

- 175/2007 dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak sortu eta ezartzekoa. Gaitasunetan oinarritzen dela aipatzeaz gain, aurreko puntuan ere esaten dena, Xedapen Orokorrek diote ikastetxeek giza eskubideetan, justizian, elkartasunean eta inklusioan oinarritutako bake-kultura sustatzeko proiektuak garatu behar dituztela. Ildo horri eusten dio 97/2010 dekretuak, aurrekoari egindako aldaketak jasotzen dituenak.
- 201/2008 dekretua, abenduaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzkoa. Dekretu horrek arautzen du ikasleek beren eskubideak erabiltzen eta beren betebeharrak betetzen ikasi behar duten bizikidetza-esparrua. Horretarako, eskubide osoko herritartzat gizartean integratzeko beharrezko gaitasunak berenganatuko dituzte ikasleek.
- 85/2009 dekretua, apirilaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Eskola Bizikidetzaren Behatokia sortzen duena. Behatokia aholku- eta partaidetza-erakundea da; hain zuzen, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetako bizikidetzari buruzko ikuspegi globala izateko eta hura hobetzeko neurriak proposatzeko tresna bat.

## **BIZIKIDETZA PLANAREN HELBURUA ETA EDUKIA**

Ikastetxeak bizikidetza positiboa hobetzeko eta garatzeko zer asmo dituen jasotzen du Bizikidetza Plana dokumentuak, bai eta helburu hori lortzeko zer estrategia erabiliko dituen ere.

Dokumentu “estrategikoa” da; bertan, zer bizikidetza-eredu lortu nahi den diseinatzeko da eta lau urteko epean zer lehentasuni ekingo zaien zehazten da. Erronka horiek hezkuntza-komunitate osoaren parte-hartzearekin sortuko eta garatuko dira; hots, familien, irakasleen, ikasleen eta administrazioaren eta zerbitzuaren langileen parte-hartzearekin.

Ikastetxeak ikasturte bakoitzean erabakiko du Bizikidetza Planaren zer alderdi garatuko eta sartuko diren Urteko Planean, zer behar eta baliabide dituen kontuan hartuta.

## **BIZIKIDETZA-PLANAREN ETA IKASTETXEKO BESTE DOKUMENTU BATZUEN ARTEKO LOTURA**

Bizikidetza Planak Ikastetxeko dokumentu hauen alderdiak garatzen ditu:

- Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuarenak:
  - Ikastetxeko bizikidetza-eredua zehazten du.
  - Hezkuntza-asmoak zehazten ditu, hautemandako beharren eta adostutako bizikidetza-ereduaren arabera.
  - Hezkuntza-komunitate osoak partaidetzarako eta konpromisorako zer bitarteko dituen zehazten du.
- Barne Erregimeneko Araudiarenak:
  - Ikastetxeko bizikidetzaren arauak eta kudeaketa zehazten ditu.
  - Bizikidetzan eragiten duten antolaketa-alderdiei buruzkoak ebazten ditu.
  - Bizikidetzan eragiten duten organoen funtzioak zehazten ditu.
  - Esparru honetako jardueraren protokoloak definitzen ditu.
- Ikastetxeko Curriculum Proiektuarenak:

- Curriculumean bizikidetzarekin lotutako gaitasunek izango duten garapena diseinatzen du.
- Ikastetxeko bizikidetza-ereduarekin bat datozen metodologia-aldaketak proposatzen ditu.
- Alor bakoitzeko programazioetan Bizikidetza Planeko jardunbideak jasotzen direla bermatzen du.
- Plan Estrategikoarenak eta Urteko Planarenak, horietan zehazten baita Bizikidetza Planeko zer helburu garatuko diren:
  - Helburuak garatzeko erabiliko diren jarduerak diseinatzen ditu.
  - Arduradunak izendatzen ditu.
  - Epeak zehazten ditu, beharrezko baliabideen aurreikuspena egiten du...
  - Lorpen-adierazleak zehazten ditu.
  - Segimendu- eta ebaluazio-plan bat zehazten du.
- Ikastetxeko Misioarenak, Ikuspegiarenak eta Balioenak.

## LANKETA-PROZESUA

Bizikidetza Plana lantzeko hiru etapatako prozesua eratu da:

- **Sentsibilizazioa.** Etapa honek bi helburu izan ditu. Batetik, informatzea, motibatzea, Plana zer den eta zergatik egin den azaltzea eta hezkuntza-komunitate osoaren parte-hartzea erraztuko duen egitura sortzea. Bestetik, bizikidetzari buruzko ikuspegiak elkarbanatzea, esparru komun bat sortzeko. Fase horren azken emaitzari esker, hezkuntza-komunitate osoak adostutako bizikidetzaren definizioa sortu da, alor honetan norantz ibili nahi den adieraziko duena.
- **Ikastetxeko errealitatearen diagnostikoa.** Ikastetxeko bizikidetzaren kalitateari buruzko balorazioak partekatu eta alderatu dira. Horretarako, ikastetxeko bizitzaren alderdi guztiak sakon berrikusi ditugu eta, horri esker, bizikidetzaren indarguneak (ikastetxea horiez harro dago) eta ahulguneak (ezinegona sortzen digutenak) hauteman ditugu. Ondorioak gainditu, eta hautemandako ezinegonen kausa sakonetara iristen ahalegindu gara, horien araberrako hobekuntza-helburuak formulatzeko.
- **Plangintza.** Etapa honen helburua lehentasunak adostea eta alor honetarako “bide-orria” zehaztuko duen laur urterako plan bat diseinatzea izan da. Plan hori Urteko Planen bidez gauzatuko da, eta haien ebaluazioei esker ikasturtez ikasturte Bizikidetza Plana ikastetxeko egoera berrietara egokitu ahal izango da.

## ELKARBIZITZA BEHATOKIA

### Definizioa:

Elkarbizitza Behatokia (EB) ikastetxean bizikidetza kudeatzeko organoa da, eta xede du harreman positiboen sorrera sustatzea eta bizikidetza onuragarria eratzea. Horren guztiaren helburua pertsona guztiak baloratuak, entzunak, partaide, erabakiak hartzeko arduradun eta ikastetxeko bizitzan alde aktibo sentitzea da.

EBa praktika demokratikoak sustatzeko sortu zen, nagusitasun-menpekotasun eskema guztiak ezabatuko dituztenak eta berdintasun-harremanak garatzea

sustatuko dutenak. Praktika demokratiko horietan pertsona guztiek beren erabakiak hartu ahal izango dituzte, begirune-, berdinen arteko elkarriketa-, negoziazio- eta adostasun-esparru batean.

### **Funtzioak:**

- a) Behatokiak sustatu behar du Bizikidetza Plana eratzea eta martxan jartzea, bai eta haren segimendua eta ebaluazioa ere.
- b) Estamentu guztien parte-hartzea bermatzea, bereziki ikasleena.
- c) Estamentu guztietan, denak taldeko kide direnaren sentipena indartzea, ikasleen artean bereziki.
- d) Prozesu eta harreman-eremu guztietan aukera- eta tratu-berdintasuna zaintzea.
- e) Harreman positiboak sustatzeko jarduerak proposatzea hezkuntza-komunitate guztiari: topaketak, festak, nahiak, emozioak, sentimenduak... adierazten dituzten horma-irudiak; antzerki-taldeak, gorputz-adierazpeneko, erlaxazio... ikastaroak; intereseko gaiei... buruzko eztabaida-taldeak; komunikazio-gaitasunetan, gatazken eraldaketan... formakuntza.
- f) Elkarren arteko zaintzaren kultura garatzen laguntzea. Kultura horretan norbere burua eta besteak zaintzeak poztasuna eta elkarren arteko aberastea ekarriko ditu.
- g) Ikastetxeko elkarbizitza-araudia aztertzea (esplizitua: Barne Erregimeneko Arauak... eta inplizitua: idatzita ez dagoena), haren diagnostikoa egitea eta hobekuntza-prozesuak martxan jartzea.
- h) Kezkak, iradokizunak eta proposamenak (estamentu guztienak) jasotzea, hauek lortzeko: harremanak hobetzea, gatazkek eraldatzea eta bizikidetza onuradun bat lortzeko bidean aurrera egitea. Kezka, iradokizun eta proposamen horiek bideratzea.
- i) Jarduera-protokoloak (bideratzea eta kudeaketa) eguneroko bizitzako beharrei eta gatazkei aurre egiteko.
- j) Berdinen artean gerta litezkeen indarkeria- eta tratu txar-kasuak hautematea (triptikoak, galdetegiak, soziogramak, testak... zabaltzea) eta adostutako neurriak berehala praktikan jarriko direla bermatzea.
- k) Informazioa biltzea beste eremu batzuetako elkarbizitzaren garapenari buruz, bai eta inguruko ekimenei eta baliabideei buruz ere.
- l) Inguruko beste erakunde, organismo eta entitateekin elkarlana sustatzea, elkarbizitza positiboa eta lankidetzaren kultura indartzeko.
- m) Behatokiaren beraren lan-plana egitea, bai eta urteko ebaluazioa eta memoria ere.

### **Osaera:**

- a) Zuzendari Orokorra
- b) Zuzendaritza Akademikoa
- c) Irakasle 1
- d) Orientazio Departamentuko arduraduna
- e) Ikasleen 2 ordezkari.
- f) Administrazioako eta zerbitzuetako langileen ordezkari 1
- g) 3 guraso edo legezko arduradun

## **Funtzionamendua:**

Elkarbizitza Behatokia hiru aldiz bilduko da gutxienez, kontuan hartuta zer helburu, helmuga eta zeregin proposatu diren, zer baliabide dauden eta behatokiak zenbat kide dituen. Ikasturtearen hasieran (Urteko Bizikidetza Plana egiteko eta hedatzeko), bigarren hiruhilekoan (UBPren segimendua egiteko) eta, beste behin, ikasturtearen amaieran (ebaluazioa eta memoria egiteko) bilduko da.

## **Sorrera:**

Ikastetxeko Elkarbizitza Behatokia 2009ko abenduaren 15ean sortu zen lehenago azaldutako funtzioak, osaera eta funtzionamendua oinarri hartuta.

## **LANKETA-FASEAK ETA ONDORIOAK**

### **SENTSIBILIZAZIOA.**

#### ***Kontzeptu-mapak partekatzea.***

#### **IKASLEAK:**

1. Ikasleek eta irakasleek hitz egin, eztabaidatu eta ideiak partekatu behar dituzte ikastetxean, elkarbizitza- eta errespetu-giro positiboa sortzeko.
2. Ikastetxeko pertsona guztiek elkar errespetatzeko eta ongi konpontzeko lan egin behar dugu. Sortzen zaizkigun gatazkak konpondu behar ditugu eta, horrela, hobeto elkarbizitzen ikasiko dugu pixkanaka.
3. Ikasleek ere parte hartu behar genuke elkarbizitza gaiztotuko balitz hartuko liratekeen neurrietan, elkarbizitza hori gure erantzukizuna ere badenez.

#### **FAMILIAK:**

1. Elkarbizitzak guztion partaidetza eskatzen du, familia, irakasleena, ikasleena eta administrazioko eta zerbitzueta langileena. Parte hartzeko bideak sortu behar dira, era onuragarrian nola funtzionatu eta elkarbizi nahi dugun definitzeko.
2. Gurasoek ere badugu gure zeregina ikastetxeko elkarbizitza bide onetik joan dadin. Parte-hartzea da funtzionamendua alderdi askotatik hobetzeko bidea.
3. Elkarbizitza-arazoak arruntak dira eta ohikoa da familian, ikastetxean edo beste kolektibo batzuetan azaltzea. Helburu izan behar dugu arazo horiek funtzionamendu normala ez oztokatzea; eta, halaber, horiek konpontzeko prozesuari esker guztiek zerbait ikas dezagun eta guztiok hezi gaitezen ahalegindu behar dugu.
4. Zenbait haurri ez zaie mugarik jartzen familietan eta horrek arazoak sortzen dizkie elkarbizitzarako eta arauak errespetatzeko.

## IRAKASLEAK:

1. Bizikidetza-plan on batean, gatazkak konpontzeko proposatzen diren metodologiek alderdi hauek lehenetsi behar dituzte: kausak, protagonisten sentimenduak eta elkarriketa.
2. Ikastetxeko elkarbizitzan eragin zuzena du irakasleen zenbait gaitasunek; hain zuzen ere, haien jarduerari buruz gogoeta egiteko gaitasunak eta ikasleei beren kezkak, nahiak, emozioak, sentimenduak eta ideiak adieraztea erraztuko dieten metodologia berriak saiatzeko gaitasunak.
3. Elkarbizitza positiboak adostutako arau argiak eskatzen ditu, ikasleek, irakasleek, familieek eta administrazioako eta zerbitzuetako langileek elkarrekin eratutakoak. Arau horiek hezkuntza-komunitateko pertsona guztien autonomia, erantzukizuna eta aldatzeko eta hobetzeko gaitasuna sustatu behar dituzte.
4. Hainbat motako gatazka-iturri izan daitezke ikastetxearen antolaketa, ikasgaien programazioa, metodologia, harreman-motak... Beraz, ez dugu pentsatu behar gatazken arrazoia irakasleen, ikasleen edo familien arazo pertsonalak direla.

## **Ikastetxeko elkarbizitza: Giza Eskubideei arreta jartzea.**

## IKASLEAK:

1. Ikastetxea leku segurua da niretzat eta han bizikide ditudan pertsonen ondo tratatzen naute (giro ona dago eta irakasleen eta ikasleen arteko harremana ona da).
2. Arazoren bat baldin badaukagu, ikastetxean laguntza eska dezakegu, tutoreei, psikologoari...
3. Gure ideiak, iritziak eta pentsatzen duguna lasai eta askatasunez adierazten ditugu ikastetxean.
4. Ikastetxeko jardueretan, harremanetan eta erabiltzen ditugun materialetan emakumeak eta gizonak mota guztietako zereginetan eta edozein motatako lanpostuetan agertzen dira. Horrez gain, hainbat etniatakoak, herrialdeetakoak, gizarte-jatorrikoak, orientazio sexualekoak, hainbat gaitasun fisiko eta psikikokoak... izaten dira eta hainbat familia-mota... agertzen dira. Ikastetxeko pertsona guztiek sentitzen dugu kontuan hartzen gaituztela, ordezkatzela gaudela eta errespetatzen gaituztela.
5. Ezagutzen ditugu gure eskubideak, bai eta gure betebeharrak ere (gure buruarekikoak eta hezkuntza komunitatearekikoak). Gure betebeharrak betetzeak ondo sentiarazten gaitu eta segurtasuna ematen digu gure eskubideak bete daitezen eskatzeko.

**Oharra: betebeharrak ahazteko eta eskubideak gehiegikeriaz erabiltzeko joera daukagu.**

6. Mundu guztiak errespetatzen ditu gure gauza pertsonalak eta ez inork ez du gure familiei buruzko txantxarik egiten.

**Oharra: gehienek errespetatzen dituzte, baina gutxiengo batek ez.**

7. Ikastetxeko ikasleek parte-hartze zuzena dugu eragiten diguten erabakietan (eskolako biltzarrak..., eskola-kontseilua...) eta ikastetxeko bizitzan: ikasgelako, jolastokiko... jardueretan, eskolaz kanpoko jardueretan...

**Oharra:** hala ere, gure ekarpenak ez dira kontuan hartzen.

## FAMILIAK:

1. Nire semeak edo alabak ikastetxean arazoren bat baldin badauka laguntza eska dezake. Beti dauka norengana jo.

2. Nire ideiak eta pentsatzen dudana lasai eta askatasunez adierazten ditut ikastetxean.

3. Familiek parte hartzen dugu eragiten diguten ikastetxeko erabakietan. Gure ekarpenak kontuan hartzen dituzte. Halaber, ikastetxearen parte diren pertsona guztiek parte hartzen dute haren antolaketan eta erabakietan –hala eragiten dietenetan nola orokorretan–.

4. Ikastetxeko jardueretan, harremanetan eta erabiltzen ditugun materialetan emakumeak eta gizonak mota guztietako zereginetan eta edozein motatako lanpostuetan agertzen dira. Horrez gain, hainbat etniatakoak, herrialdeetakoak, gizarte-jatorrikoak, orientazio sexualekoak, hainbat gaitasun fisiko eta psikikokoak... izaten dira eta hainbat familia-mota... agertzen dira. Ikastetxeko pertsona guztiek sentitzen dugu kontuan hartzen gaituztela, ordezkatuta gaudela eta errespetatzen gaituztela.

5. Ezagutzen ditugu gure eskubideak, bai eta gure betebeharrak ere (gure buruarekikoak eta hezkuntza komunitatearekikoak). Gure betebeharrak betetzeak ondo sentiarazten gaitu eta segurtasuna ematen digu gure eskubideak bete daitezen eskatzeko.

6. Ikastetxea leku segurua da eta bertan elkarbizitzen dugun pertsonak elkar ondo tratatzen dugu.

**Oharra:** hala ere, batzuetan ez da tratatu ona eta begirunea egon.

7. Ikastetxean errespetatzen dira gauza pertsonalak eta da familiei buruzko txantxarik egiten.

**Oharra:** hala ere, batzuetan ez da tratatu ona eta begirunea egon.

## IRAKASLEAK:

1. Errespetatzen ez baldin bagaituzte, ikastetxean laguntza eska dezakegu.

2. Ikastetxean nire sinesmen propioak eta nahi dudana erlijioa izan ditzaket.

3. Pentsatzen duguna esan dezakegu ikastetxean.

4. Ikastetxeko erabaki- eta kudeaketa-organismoetan parte hartzen dugu.

5. Ikastetxeko pertsona guztiek jasotzen dugun hezkuntzan ez dago sexuagatiko, generoagatiko, gizarte-jatorriagatiko, etniagatiko, aukera sexualagatiko... inolako bazterketarik.

6. Ikastetxeko kultura-bizitzan parte hartzen dugu eta gure ekarpenak aintzat hartzen eta errespetatzen dituzte.

7. Gure eskubideen muga gure betebeharrak dira, gure buruarekikoak eta hezkuntza-komunitatearekikoak.

8. Pertsona guztiak askeak eta berdinak gara ikastetxean.

**Oharra:** askeak bai, baina berdinak ez.

9. Ikastetxean aske bizi gara pertsona guztiak eta seguru sentitzen dugu gure burua. Ez dugu tratatu txarrik jasaten.



Oharra: oro har, bai, baina liskarrak, irainak, bakartzeak... sortzen dira.

10. Ikastetxean errespetatzen dute gure intimitatea, nire intimitatea.

Oharra: ia beti, kontuan hartu behar baitira komunikazio-sistema berriak, hala nola telefonoa eta sare sozialak.

11. Nire gauzak eduki ditzaket ikastetxean inork hondatuko edo kenduko dizkidanaren beldur izan gabe.

Oharra: lapurretak izaten dira.

## **Nola definitzen ditugu gatazka, elkarbizitza-arauak eta bizikidetza.**

### **BIZIKIDETZA:**

Gatazka-egoera da beren nahiak, interesak, beharrak edo balioak bateraezinak direlako bi edo pertsona gehiago elkarren aurka jartzea edo ados ez jartzea. Gatazketan emozioek eta sentimenduek garrantzi handia dute eta aldean arteko harremana indartu edo hondatu egin daiteke gatazka konpontzeko prozesuaren arabera.

Ikastetxeak giza harreman guztien osagai ekidinezintzat hartzen ditu gatazkak, eta, egoki ekiten bazaie, pertsonak eta taldeak hobetzeko aukera ematen dutela iruditzen zaigu.

Gatazkak eraldatzeko eta ebazteko (zigorra jartzen baldin bada), kaltea erreparatzearen eta harremanak leheneratzearen alde egingo da.

### **ELKARBIZITZA-ARAUAK:**

Ikastetxean definizio hau ematen zaie elkarbizitza-arauei: komunitateko askotariko kideen elkarbizitza arautzen duen arau-multzoa. Horietan, esplizituki adierazi beharko dira aukera eta tratu berdintasuna, bai eta arrisku- eta zaurgarritasun-egoerak ere.

Hezkuntza-komunitateko sektore guztiek (edo beren ordezkariak) egin eta/edo adostu behar dituzte elkarbizitza-arauak.

### **BIZIKIDETZA:**

Ikastetxean, elkarbizitza esaten dugunean hezkuntza komunitateko kide guztien arteko harreman pertsonalen sareaz ari gara. Sare horretan komunikazio-prozesuak, balioak, jarrerak, rolak, estatusa eta boterea eratzen dira.

Harreman horien oinarriak begirunea, elkarriketa, enpatia eta komunitateko kide guztien erantzukizun partekatua izan behar dute, horiek baitira indarkeriara jo gabe elkar entzuteko eta errespetatzeko gai izango diren pertsonak hezteko tresnak.

## **DIAGNOSTIKOA.**

**Diagnostikotik engaiamendura: non gaude.**

**Esparruak: hezkuntza-politika, elkarbizitzaren antolaketa eta kudeaketa, gatazken eraldaketa eta etika.**

**IKASLEAK:**

### **Indarguneak (jardunbide egokiak/laguntzak).**

#### **Elkarbizitzaren antolaketa eta kudeaketa:**

Ikastetxeko elkarbizitza-arauek eta -prozedurek harremanetan eta lanean segurtasun-giro onari eusten laguntzen dute.

Ikastetxea leku segurua eta eroso da, eta bertan era onuragarrian eta demokratikoan bizitzen eta elkarbizitzen da; hau da, pertsona guztien osotasun fisikoa eta morala errespetatzen da eta horiek pertsona edo talde boteretsuen apeten irizpidearen menpe gera ez daitezen zaintzen da.

#### **Gatazken eraldaketa:**

Ikastetxearen ustez, hauek dira elkarbizitza positiborako estrategiak: elkarriketa, beste pertsonak eta haien berezitasunak onartzea eta adostasuna bilatzea.

### **Ahulguneak (egoera gatazkatsuak).**

#### **Hezkuntza Politika:**

Ikastetxean egiten den ebaluazioak ikasleak kalifikatzeko baino ez du balio. Irakasleek ez dute hausnartzen erabilitako programazioa edo metodologia egokia izan ote den. Horrez gain, irakasleek ez dizkie ikasleei gaizki baloratutako irizpideak gainditzeko neurriak, lanak edo errefortzuak aholkatzen.

#### **Elkarbizitzaren antolaketa eta kudeaketa:**

Ikastetxean ez dago sor daitezkeen gatazken aurreikuspenik, ez eta muga argirik ere, eta gatazkei aurre egiteko jarduera-protokoloak motelak eta ez-eraginkorrak dira.

Ikastetxean arauak ez dira estamentu guztien benetako parte hartzearekin egiten. Izatez, gai hori irakasleen eta ikastetxeko zuzendaritzaren eskumen eksklusiboa da.

Estamentu bakoitzak bere ospakizunak antolatzen ditu eta elkarrekin egote hutsak elkarbizitza sustatuko du.

Ikastetxean uste dugu diziplina-neurriak kudeatzea eta administratzea nahikoa dela elkarbizitza egokia lortzeko.

Kargu altuenetan dauden pertsonen osatutako organoak behar ditu ikastetxeak. Organo horiek arduratuko dira elkarbizitza-prozedurak aplikatzeaz.

**FAMILIAK:**

## **Indarguneak (jardunbide egokiak/laguntzak).**

### **Hezkuntza Politika:**

Ikastetxearen antolaketa eta kudeaketa pertsona guztiak integratzera bideratuta daude, pertsona horiek duten arraza, erlijioa, jatorria... dena izanik ere. Talde bakoitzean ezaugarri desberdineko ikasleak egoteko irizpideak erabiltzen dira; hau da, ez dira ikasgela berean jartzen errepikatzailak diren edo emaitza txarrak izan dituzten ikasleak.

### **Elkarbizitzaren antolaketa eta kudeaketa:**

Ikastetxean, hezkuntza komunitatea osatzen duten estamentu guztien artean (ikasleak, irakasleak, familiak...) egiten dira arauak.

## **Ahulguneak (egoera gatazkatsuak).**

### **Elkarbizitzaren antolaketa eta kudeaketa:**

Estamentu bakoitzak bere ospakizunak antolatzen ditu eta elkarrekin egote hutsak elkarbizitza sustatuko du.

### **Gatazken eraldaketa eta etika:**

Egindako hutsari jarriko zaion zigorra benetan inporta eta kostatu behar zaio hura egin duenari.

IRAKASLEAK:

## **Indarguneak (jardunbide egokiak/laguntzak).**

### **Hezkuntza Politika:**

Ikastetxeko prozesu berritzaileen buruan jartzeko Zuzendaritza Talde bat lortzeko ahaleginak egiten dira.

Hauek dira gure ikastetxeko hezkuntza-ardatzak: ikasleen heldutasun pertsonala lortzea, bizikidetza ona eta ekitatea.

Heterogeneotasun- eta inklusio-irizpideak aplikatzen dira ikastetxearen antolaketan eta kudeaketan.

### **Elkarbizitzaren antolaketa eta kudeaketa:**

Harremanak pertsona guztien eskubideetan eta betebeharretan oinarritzen dira.

### **Gatazken eraldaketa eta etika:**

Egoera gatazkatsuetan, lehen pausoa entzutea eta laguntza pertsonala ematea da.

## **Ahulguneak (egoera arazotsuak).**

### **Hezkuntza Politika:**

Formakuntza-jarduerak ez ditu ikastetxeak berak artikulatzen. Ikastetxea ez da formakuntzaz arduratzen, eta ez du hura antolatzen.

### **Elkarbizitzaren antolaketa eta kudeaketa:**

Araudia dokumentu ezezaguna eta zaharkitua da, eta hezkuntza-komunitateak ez du bizikidetza-tresnatzat onartzen.

Estamentu bakoitzak bere ospakizunak bere irizpideen arabera antolatzen ditu, eta uste dute ez dela besterik egin behar.

#### **Gatazkaren eraldaketa eta etika:**

Ez dago irizpide adosturik, eta bakoitzaren jarreraren arabera izaten da elkarbizitzan esku-hartzeko modua.

Gatazka-egoeretan gertatu ahala esku-hartzen da, berehalakotasunez.

**Esparruak: parte-hartzea, emozioak, sentimenduak eta identitatea, irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesua, irakaskuntza-estiloa.**

IKASLEAK:

#### **Indarguneak (jardunbide egokiak/laguntzak).**

##### **Irakaskuntza-estiloa:**

Ikastetxearen iritziz, lan kooperatiboa eraginkorra da pertsona guztien ikaskuntza eta harremanak hobetzeko.

#### **Ahulguneak (egoera gatazkatsuak).**

##### **Emozioak, sentimenduak eta identitatea:**

Ez daukagu, ikasgelan ematen direnez gain, ezagutza- eta elkartruke-jarduera espezifikorik.

##### **Irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesua:**

Ikaskuntzaren azken arduraduna irakasleak dira eta ikaskuntza-jarduerak programatzea da haien lana.

##### **Irakaskuntza-estiloa:**

Eskoletan monotonia nagusitzen da eta nabarmena da irakasleen irakasteko eta ikasleen ikasteko gogorik eza.

Horren eraginez, erraz amore ematen dugu eta gogorik gabe joaten gara ikastetxera.

FAMILIAK:

#### **Indarguneak (jardunbide egokiak/laguntzak).**

##### **Irakaskuntza-estiloa:**

Hezkuntzarekin zerikusia duten pertsonak elkarren uste ona dute eta horrek segurtasuna ematen digu.

#### **Ahulguneak (egoera gatazkatsuak).**

##### **Parte-hartzea:**

Hauen guztien parte-hartze aktiboa ia inori axola ez zaion lan-karga da ikastetxeko kudeaketa- eta antolaketa-organoetan: ordezkarien batzordearena, irakasleen ordezkartzearena, ikasleena, familiena...

**Parte-hartzea:**

Informazioaren elkartrukeak eta kateek ez dute funtzionatzen, ez eta ordezkartzei dagozkienek ere.

**Irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesua:**

Ikaskuntzaren azken arduraduna irakasleak dira eta ikaskuntza-jarduerak programatzea da haien lana.

**IRAKASLEAK:****Indarguneak (jardunbide egokiak/laguntzak).****Parte-hartzea:**

Ikastetxean komunikazioa ona da, gardentasunez aritzen da eta elkarriketarako aukera dago.

Ordezkaritza-sistemak eta informazioa elkartrukatzeko eta berreskuratzeko mekanismoak eraginkorrak dira.

Ikastetxearen jarduna adostua eta koherentea da.

Harreman-motak eta trataera begirunetsua familiek, ikasleek, administrazioako eta zerbitzu-etako langileek eta irakasleek adosten dituzte.

**Emozioak, sentimenduak eta identitatea:**

Uste osoa dugu aurrera egiteko aukerak kontuan hartu eta zailtasunak gainditu behar direla, eta akatsetatik ikasi behar dela.

Eragiten dieten kontuei buruz erabakitzeak aukera erreala dute pertsona guztiek.

Gure ikastetxea ezaugarritzen dute lan-giroaren baikortasunak eta ikaskuntza- eta hezkuntza-arrakastarako aukerak.

**Irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesua:**

Curriculumak garatzeko malgutasunari esker, arreta jar daiteke gizarte- eta emozio-ikaskuntzan eta bizikidetzaren positiboaren garapenean.

Programatzen diren edukiek eta jarduerak aintzat hartzen dituzte aurretik motibatutako ikaslearen interesak eta beharrak.

**Irakaskuntza-estiloa:**

Harremanetan, oro har, pertsonak baloratu eta aintzat hartzen dira.

**Ahulguneak (egoera arazotsuak).****Parte-hartzea:**

Esparru batean ere ez dago eta ez da sustatzen ikaslearen ordezkartzarik.

**Irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesua:**

Irakasleek beren irizpidea baino ez dute erabiltzen eskolak diseinatzeko eta emateko.

**Irakaskuntza-estiloa:**

Monotoniak, zailtasunek eta nekeak distantziak sortzen dituzte, bai eta ikastetxera egunero gogorik gabe etortzea ere.

## **PLANGINTZA.**

### **Ahulguneen kausen azterketa.**

#### **ESPARRUAK KAUSAK**

##### **1. Hezkuntza-politika**

- Kalifikaziora zuzendutako ebaluazioa egiten da: ez da hezigarria. Ez dago gogoetarik metodologiaren eta programazioaren inguruan
- Aldaketak prestakuntza-programaziorik aurreikusi gabe ezartzen dira. Ekonomia-, antolakuntza- eta baliabide-zailtasunak.

##### **2. Elkarbizitzaren antolaketa eta kudeaketa**

- Ez dago gatazken aurreikuspenik, ez eta elkarbizitza-araudiaren ezagutza espezifikorik ere.
- Ez dago partaidetza-mekanismo errealik (ikasleen delegatuak, Eskola Kontseiluko ordezkariak...).
- Hezkuntza-komunitateko kide desberdinen arteko banaketa oso argia da.
- Elkarbizitzaren kudeaketa tradizionala nagusitzen da: akzio-erreakzioa (zigorra).
- Komunikazio-, konfiantza- eta interes-gabezia.
- Ez ditu itxaropenak betetzen, ez da funtzionala eta zaharkituta dago.
- Naturala da eta ez da txarra.

##### **3. Gatazken eraldaketa eta etika**

- Jokabidea sortzen duen kausaren funtsera iritsi gabe zigortzen da.
- Zigor tradizionalak. Zenbaitetan ez dira kontuan hartzen kasu bakoitzari egokitutako zigor hezigarriagoak.
- Ez dago araudi argirik.
- Ezin dugu denek irizpide berberekin ados egon eta horrek ezinegona sortzen du.
- Ez dago jarduteko protokolo argirik.

##### **4. Parte-hartzea**

- Pertsonen arteko komunikazio-gabezia proiektuak antolatzen direnean.
- Lan-gainkarga komunikazio-gabeziaren ondorioz.
- Interes-gabezia.
- Eskuordetzeko joera

##### **5. Emozioak, sentimenduak eta identitatea**

- Irakaskuntza oso teorikoa (aldatzen ari da).

##### **6. Irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuak**

- Irakaskuntza-ikaskuntza zurrunegia, ez du aniztasuna kontuan hartzen.
- Ikasle guztientzat egokia izan ezin daitekeen ikaskuntza.
- Koordinazioa falta denaren sentsazioa: irakaskuntza-jardueran ez dago batasunik.

##### **7. Irakaskuntza-estiloa**

- Gogorik eza sortzen duen metodologia gatzgabea.

**Eraldaketa: kausak helburu bilakatzea.**

## **ESPARRUAK HELBURUAK**

### **1. Hezkuntza-politika**

1. Ebaluazioei buruz gogoeta egitea eta hezigarriak izan daitezen bideratzea. Behar balitz, metodologian eta programazioan aldaketak egitea.

2. Hezkuntza-legeetan egon daitezkeen aldaketei aurrea hartzen jakitea.

### **2. Elkarbizitzaren antolaketa eta kudeaketa**

3. Ikasleei bizikidetza-araudia ezagutaraztea eta gatazkak aurreikustea.

4. Ikasleen ordezkarien bidez (delegatuak, Eskola Kontseilua...), horien partaidetzarako mekanismoak artikulatzea.

5. Ospakizunak guztiok elkarrekin antola ditzagun sustatzea.

6. Ikasleei elkarbizitza kudeatzeko ekintzen eta diziplina-ekintzen balioa adieraztea.

7. Partaidetza bidez, bizikidetza-araudi bateratua egitea.

### **3. Gatazken eraldaketa eta etika**

8. Familiei elkarbizitza kudeatzeko ekintzen eta diziplina-ekintzen balioa adieraztea.

9. Partaidetza bidez, bizikidetza-araudi bateratua egitea.

10. Gatazkak kudeatzeko irizpide bateratuak adostea.

### **4. Parte-hartzea**

11. Ikastetxean parte-hartzea indartzera bideratutako askotariko ekintzak sustatzea, dagoeneko baditugun bideen bidez eta susta litezkeen beste berri batzuen bidez.

### **5. Emozioak**

12. Metodologia berri aktiboak sustatzea eta ezartzea, baliabide berriak (IKT) erabilia.

### **6. Irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesua**

13. Aniztasunaren lanketan sakontzea metodologiak, programazioak eta ikaskuntza-jarduerak martxan jartzen direnean. Irakasleen hezkuntza-jarduna koordinatu behar da horretarako.

### **7. Irakaskuntza-estiloa**

14. Metodologia berri aktiboak sustatzea eta ezartzea, baliabide berriak (IKT) erabilia.

## **DATOZEN LAU IKASTURTEETARAKO HELBURUAK:**

**2012-13, 2013-14, 2014-15 Y 2015-16.**

1. Ebaluazioei buruz gogoeta egitea eta hezigarriak izan daitezen bideratzea. Behar balitz, metodologian eta programazioak aldaketak egitea.

2. Hezkuntza-legeetan egon daitezkeen aldaketei aurrea hartzen jakitea.

3. Ikasleei bizikidetza-araudia ezagutaraztea eta gatazkak aurreikustea.

4. Ikasleen ordezkarien bidez (delegatuak, Eskola Kontseilua...), horien partaidetzarako mekanismoak artikulatzea.

5. Ospakizunak guztiok elkarrekin antola ditzagun sustatzea.

6. Ikasleei elkarbizitza kudeatzeko ekintzen eta diziplina-ekintzen balioa adieraztea.
7. Partaidetza bidez, bizikidetza-araudi bateratua egitea.
8. Familiei elkarbizitza kudeatzeko ekintzen eta diziplina-ekintzen balioa adieraztea.
9. Partaidetza bidez, bizikidetza-araudi bateratua egitea.
10. Ikastetxean parte-hartzea indartzera bideratutako askotariko ekintzak sustatzea, dagoeneko baditugun bideen bidez eta susta litezkeen beste berri batzuen bidez.
11. Metodologia berri aktiboak sustatzea eta ezartzea horretarako baliabide berriak (IKT) erabilia.
12. Aniztasunaren lanketan sakontzea metodologiak, programazioak eta ikaskuntza-jarduerak martxan jartzen direnean. Irakasleen hezkuntza-jarduna koordinatu behar da horretarako.

## **2012-13 URTEKO ELKARBIZITZA PLANEKO HELBURUEN LEHENESPENA ETA AUKERAKETA**

### **HELBURUEN ZERRENDA PUNTUAK**

1. Ebaluazioari buruz gogoeta egitea eta hezigarria izan dadin bideratzea. Behar izanez gero, metodologian eta programazioan aldaketak egitea. 51
2. Hezkuntza-legerian izan litezkeen aldaketei aurrea hartzen jakitea. 11
3. Ikasleei elkarbizitza-araudia ezagutaraztea eta gatazkak prebenitzea. 33
4. Ikasleek beren ordezkarien bidez (delegatuak, Eskola Kontseilua...) parte-hartzeko aukera izan dezaten mekanismoak artikulatzea. 51
5. Ospakizunak elkarrekin antola ditzagun sustatzea. 15
6. Ikasleei elkarbizitza kudeatzeko ekintzen eta diziplina-ekintzen balioa adieraztea. 34
7. Partaidetza bidez elkarbizitza-araudi bateratua egitea. 71
8. Familiei elkarbizitza kudeatzeko ekintzen eta diziplina-ekintzen balioa adieraztea. 45
9. Gatazkak kudeatzeko irizpide bateratuak adostea. 54
10. Ikastetxean parte-hartzea indartzera bideratutako askotariko ekintzak sustatzea, dagoeneko baditugun bideen bidez eta susta litezkeen beste berri batzuen bidez. 35
11. Metodologia berri aktiboak sustatzea eta ezartzea horretarako baliabide berriak (IKT) erabilia. 52
12. Aniztasunaren lanketan sakontzea metodologiak, programazioak eta ikaskuntza-jarduerak martxan jartzen direnean. Irakasleen hezkuntza-jarduna koordinatu behar da horretarako. 40